

In memoriam

Aita Luis Baraiazarra Txertudi (Meñaka, 1940 - Markina-Xemein, 2024)

—Patxi Uribarren—

Aita Luis Bizkaiko auzo txiki euskaldun bateko kristau familia abertzale euskaldun batean jaio zen. Beraz, haurtzaroa, naturaz harreman estuak zituen euskara hutsezko giroan eman zuen. Horrek, betirako markatu zuen bere izaera. Hori horrela, hiru aldi ongi berezituak ageri dira bere bizitzan: Meñakako umetako bizitza, ikasketa-garaikoa eta Markinako komentuan egindakoa. Luisek hainbat datu dakartza aldi horiei buruz, eskuizkribu laburrean eta bere *Nire umetako Meñaka* eta *Nire sasoiko Markina-Xemein* bi liburu autobiografiko ederretan.

Heziketa-bide luzearen zertzeladak

Honela dio bere eskuizkribu laburrean: «Meñakan (Bizkaia) jaio nintzen 1940ko martxoaren 17an. Hamar neba-arreba gara; ni bederatzigarrena. Neure herriko eskolan egin nituen lehen ikasketak, 12 urte betetzeko nituela Zornotzako Karmeldarren ikastetxean sartu arte. [...] Latin eta giza zientziak Zornotzan eta Nafarroako Alesbesen egin nituen. 1957-1958an nobiziatua Larrean, profesa ondorengo urtea Markina-Xemeinen egin ondoren, Gasteizen burutu nituen filosofiako hiru urteak eta Begoñako Karmelon teologiako lau urteak. 1966an apaiztu nintzen».

Euskal alfabetatzeari dagokionez, hiru une gogoratzen zituen bereziki: Zornotzako urteak, Markinakoa eta, batez ere, Begoñako Karmelon lortutako goi-mailako alfabetatzea. Berton, elizako euskal mezan laguntzeaz gainera, karmeldar

ikasleak euskarara erakartzeko Gogoz aldizkariaren sortzailetakoa eta idazlea izan zen Markinara joan zen arte. Garai horri buruz honako hau dio:

1966an apaiztu nintzen eta hiru bat hilabete Larrean egin eta 1966ko abuztuan Markina-Xemeinera etorri. Harrezkero, hementxe bizi naiz, 1967an Madrilen igaro nuen sei hilabetetako tartearen kenduta.

Ohiko ziren eliz ikasketak burutu ondoren, maisutza-karrera egin nuen, Valladoliden 1970ean titulua lortuz eta geroago Euskal Filologia Deustuko Unibertsitatean lizentziatu titulua 1982an eskuraturik.

13 urte egin zituen irakasle-lanetan. Euskal Filologiako ikasketek euskal literaturaren ezagutza sakona eman zioten. Izugarrizko oroimena zuenez iturri agortezin bihurtu zitzaizkion gerora burutu zuen lanerako.

Nortasuna eta bizitzako ibilbidea

Hasieran esan dudanez, aita Luis etxean eta auzoan kristau heziketa euskalduna jasoz naturarekin harreman estuan bizi izan zen. Horrela, gerora, bizitza osoa kristau fedearen zerbitzuan eskaini zuen Karmeldarron Ordenan, era berean bere ahalmenak euskararen alde jarritz. Mendizale porrokatua ere bazen, Euskal Herriko mendi-gailur gehienak gozamen handiz bisitatua.

Markinara etorri eta berehala hasi zen pastoraltza-lanetan. Igande eta jaietako hitzaldiak prestatzeak izurritzko erraztasuna eman omen zion, euskara jator eta errazaz jabetzeko. Berehala hasi zen komentuaren babespean sortutako Zerutxu ikastolari laguntzen, hasieran euskara eta kantuak irakasten eta gero irakasle-lanetan. *Karmel* aldizkarian Olerti sortan idazten ere hasi zen.

Nola uztartu zituen fraide-bizitza eta euskararen aldeko jarduna oso argi ageri zaigu Juan Luis Goikoetxeak egin zion elkarrizketa luzeko erantzunetan. Labur esateko, buru-belarri kokatu zuen etxeko eta inguruetako pastoraltza-lanetan, komentuko karmeldar familia barruko zereginetan, laguntza bila hurbiltzen zirenei eskuzabalez ematen, beti ere, gogo onez, maitasunez, pertsona guztien zerbitzuan etenik gabe lan eginez. Ez dezagun ahaztu hau izan zela euskara munduan burutu zuen lan izugarriaren barne-eragilea.

Otoitz-gizona, bihotz zabala, maitekorra, zerbitzaria izan zen, ezagutu zenuten guztiok gogoratuko duzuenez. Azken batean, Kristoren jarraitzaile maitemindua. Oso zintzo eta fidela. Hori askoz ere sakonago bizi izan zuen bizitzako azken aldian nahiko gaixorik egin zituen urteetan.

Euskara-eremuan burututako lanak

I- Lexikologia alorrean:

I.1 Hiztegegintzan: (15 urte) 1983n Bostak Bat elkartaldeak bertako kide egin eta liberatuta jardun zuen hiztegegintzan. Berak prestatuak izan ziren euskara hutsezko *Euskararako Hiztegia* (25.000 aletik gora zabaldu ziren), *Europa Hiztegia* eta *Eskola Hiztegia*. Horrez gainera, hiztegi elebidunen prestaketa gidatu zuen, hots, 3000 *Hiztegia* eta 5000 *Hiztegia* handien gidari izan zen. *Sinonimoen Hiztegiak* liburukietan ere parte hartu zuen.

I.2 Euskaltzaindian: Honakoa zioen: «1991eko abenduan Hiztegi Batuko batzorde berrian batzordekide izendatu ninduten Euskaltzainek eta 1996an gramatika-batzordeko kide. Pixka bat lehenago, urte berean, euskaltzain urgazle izendatua izan nintzen». 2010ean ohorezko euskaltzain izendatua izan zen. Lankidetzat horretan jardun izan zuen 29 urtetan, harik eta 80 urte egitean, erretiroa hartu zuen arte.

II- Liburugintza-alorrean: (ezagunenak)

II.1 Bere-bereak diren liburuak:

- *Euskal Herriaren Historia I eta II* (1977)
- *Hitzezko txirlorak olerki-liburua* (1985)
- *Jon Lopategi bertsozko mezularia* (2000)
- *Nire umetako Meñaka* (2005)
- *Nire sasoiko Markina-Xemein* (2009)
- *Nire umetako Meñaka Olerki-jantziak* (2022)
- *Markina-Xemein hitz lauz, olerkiak eta bertsoak* (2023)

II.2 Lankidetzan Julen Urkizarekin:

- *Elizaren historia Euskal Herrian, I: ikerlan-materialak* (1995, 1450 or.)
- *Frai Bartolome Santa Teresa: idazlan guztiak. Edizio kritikoa* (2000)
- *Karmeldarrak Markinan* (2001 or.)

II.3 Itzulpen aipagarriak

- *Teresa Jesus Haurrarena, Idazlan guztiak.* (1996) *Eskuizkribu autobiografikoak eta olerkiak. Hainbaten artean.*
- *Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoa. Konstituzioak. Dekretuak. Adierazpena. Eta Dokumentu osagarriak. Euskaraz eta latinez* (2003, 1.500 or.).
- *Santa Teresa Jesusena. Idazlan guztiak* (2015, 1.851 or.): *Avilako Santa Teresa Jesusenaren idazlan guztien euskaratze lanagatik Itzulpen Onenaren sari nazionala aitortu zioten 2015ean.*
- *San Joan Gurutzeko. Idazlan Guztiak.* (2021, 1.051 or.): *Hau dugu Luisen azken itzulpen handia. Oso ardua handiz eta gogo biziz burutua.*

III- Bestelako idazlanak:

III.1 Hainbat olerki Karmelen eta Olerti sortan.

III.2 Karmel aldizkaria dugu bere lan ugarien biltokia. Bera izan da, gainera, 1983tik hona aldizkariaren zuzentzailea. Julen Urkizak dinoenez «Batez ere *Karmel* aldizkarian dogu Luis zutabe sendo: bertan bere 269 lan ageri dira (212 artikulua eta 57 itzulpen) 2.200 orrialde inguru». Bertan izan zituen bidelagun, beste hainbat karmeldar: Santi Onaindia, Lino Akesolo, Karmelo Zubizarreta, Andoni Olea, Patxi Uribarren, Julen Urkiza eta abar.

III.3 beste hainbat aldizkaritan, hala nola, *Olerti*, *Garaian*, *Gogoz*, *Kili-kili*, *Zeruko Argia*, *Jakin*, *Egan*, *Bertsolari Aldizkaria*, *Argiaren Urtekaria* eta *Anaitasuna* aldizkarietan.

IV- Bertsolaritza: Bizkaiko Bertsolari Elkarteko idazkari hainbat urtetan. Ohikoa zen Luis Baraiazarrarentzat epaile-lanetan jardutea: Eskolartekoan, Araba-Bizkaikoan, Bizkaikoan eta Euskal Herriko txapelketa nagusietan. Interneten honakoa ageri da: «Euskaltzalea eta bertsozale sutsua izaki, ekarpen ugaria,

askotarikoa eta aberatsa egin du euskararen eta bertsolaritzaren eremuan». 1989an Orixe saria lortu zuen bertso-paperetan. Kontaezinak dira, bestalde, ekintza eta ospakizun askotarikoetan egin zituen bertsoak.

V- Kiki-Kili aldizkaria. Gogoratu eta nabarmendu beharra dugu, halaber, urteetan, bera izan zela haurren alfabetatzean arrakasta hain handia izan zuen *Kiki-Kili* aldizkariaren zuzentzailea eta kolaboratzailea. Bera zen euskara batuko bertsioa prestatzen zuena.

Hain oparoa izanik bere lana hegazkada batean hurbilketa egiten ahalegindu naiz. Datu ugariago dituzue *Karmel* aldizkariak heriotza-ostean eskaini zion ale monografikoan: 2024-4 (328. zk.)

Luisek ongi bete zuen San Pauloren idazkitik jaso eta karmeldarroi erregelak gogoratzen diguna: «Lanik egin nahi ez duenak ez dezala jan».

Bete-betean bizi izan zituen Felipe Arrase-Beitia olerkariaren hitzok:

*Euskaldun jaio nintzan,
Euskalduna azi,
Euskara utsik amak
Eustan irakatsi;
Euskara maite maite
Zabiltz neugaz beti,
Euskara ill ezkerro
Ez dot gura bizi.*